

## 12/2025. AKTA OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2025eko abenduaren 18an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal

Bertaratutakoak: Argi Yeregui Egaña  
Aitor Manterola Garate  
Marina Bidasoro Arozena  
Asier Arakistain Alberdi  
Maite Egaña Larrañaga  
Unai Larrañaga Uranga  
Nerea Goiria Mendiolea  
Itziar Etxabe Etxabe  
Joxe Mari Azkue Castillo  
Jose Miguel Antia Albizu  
Ainhoa Illarramendi Azkue  
Iker Mardaras Arrieta  
Xabier Odriozola Etxaniz  
Ander Olaizola Esnal  
Duñike Agirrezabalaga Ugarte

Ez bertaratutakoak: Mireia Aranbarri Iregi

Idazkaria: Alexander Marañon Muñoz

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Arratsalde on. Haiziak eraman baino lehenao ea hasiera ematen diogun abenduko ohiko osoko bilkurari.

## ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

### 1.- IRIZPENAK

#### 1.1.- ZUMAIAKO HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIKO PLANA BEHIN BETIKO ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

**2025KO ABENDUAREN 10KO LURRALDEA BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIKO PLANARI BEHIN-BETIKO ONESPENA EMATEKO.**

**DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA "LURRALDEA" DE 10 DE DICIEMBRE DE 2025 PARA LA APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PLAN DE MOVILIDAD URBANA SOSTENIBLE DE ZUMAIA.**

### AURREKARIAK

### ANTECEDENTES

1.- Ikusirik 2024ko urtarrilaren 15eko 17/2024 Alkate Dekretu bidez onartu zela ZUMAIAKO HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO PLANA IDAZTEKO ZERBITZU KONTRATUaren adjudikazioa BUCHANAN - TECHFRIENDLY PMUS ZUMAIA UTE LEY 18/1982 aldi baterako enpresa elkarteari (U56888068 IFK).

1.- Visto que mediante Decreto de Alcaldía nº 17/2024, de 15 de enero, se aprobó la adjudicación del CONTRATO DE SERVICIOS PARA LA REDACCIÓN DEL PLAN DE MOVILIDAD URBANA SOSTENIBLE DE ZUMAIA a la UTE BUCHANAN - TECHFRIENDLY PMUS ZUMAIA UTE LEY 18/1982 (CIF U56888068).

2.- Ikusirik BUCHANAN - TECHFRIENDLY PMUS ZUMAIA UTE LEY 18/1982 aldi baterako enpresak aurkeztutako ZUMAIAKO HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO PLANA.

2.- Visto el PLAN DE MOVILIDAD URBANA SOSTENIBLE DE ZUMAIA presentado por BUCHANAN - TECHFRIENDLY PMUS ZUMAIA UTE LEY 18/1982.

3.- Ikusirik 2025eko uztailaren 23ko Ohiko Osoko Bilkuran Hasierako onarpena eman zitzaioela Zumaiako Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planari, BUCHANAN TECHFRIENDLY PMUS ZUMAIA UTE merkataritza-sozietateak aurkeztutako dokumentuaren arabera.

3.- Visto que el Pleno Municipal aprobó inicialmente el Plan de Movilidad Urbana Sostenible de Zumaia, de acuerdo con el documento presentado por la mercantil BUCHANAN – TECHFRIENDLY PMUS ZUMAIA UTE.

4.- Ikusirik Espedientea jendaurrean jarri zela, 2025eko urriaren 10era arteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean argitaratu ondoren,

4.- Visto que el expediente se sometió a Información pública hasta el 10 de octubre de 2025, mediante anuncio que se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página

**5.-** Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiari txostena eskatu zitzaiola, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren azaroaren 9ko 11/2023 Legearen 16. artikulua arabera, Lurralde Historikoko Mugikortasun Jasangarriaren Planarekin bat etortzeari buruz. Eta 2025eko Urriaren seiean txostena jaso zela.

**6.-** Ikusirik dokumentua agerraldi publikoan egon zenean alegazio idazti bakarra aurkeztu zela, honako hau: Zumaiako Zumaiako Eusko Alderdi Jeltzaleak lau ataletan egituraturako dokumentu bat aurkeztu duela. Lehenengoak Planaren ikuspegi orokorra jaso du, bigarrenak HMJParen estrategiei eta jarduketei buruzko hainbat gogoeta ditu barne, hirugarrenak ekarpen guztiak bildu ditu, eta laugarrenak hasieran onetsitako dokumentuari buruzko alegazioak adierazi ditu, guztira 23 alegazio,

**7.-** Ikusirik Alegazioei erantzuna emateko txosten tekniko eta juridikoak.

web municipal.

**5.-** Visto que se solicitó informe a la Diputación Foral de Gipuzkoa, de conformidad con el artículo 16 de la Ley 11/2023, de 9 de noviembre, de Movilidad Sostenible del País Vasco, sobre su adecuación al Plan de Movilidad Sostenible del Territorio Histórico, y que se recibió con fecha de seis de octubre de 2025.

**6.-** Visto durante el periodo de exposición pública Zumaiako Eusko Alderdi Jeltzalea presentó un documento estructurado en cuatro apartados. El primero recoge una visión global del Plan, el segundo incluye diversas consideraciones sobre las estrategias y actuaciones del PMUS, el tercero concentra el conjunto de sus aportaciones y el cuarto apartado formula las alegaciones al documento aprobado inicialmente. En total 23 alegaciones.

**7.-** Vistos los informes técnicos y jurídico en respuesta a las alegaciones.

ALDEKO iritzia eman du eta honako IRIZPEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

**LEHENENGOA.** Zumaiako Eusko Alderdi Jeltzaleak aurkeztutako alegazio hauek onestea eta txosten teknikoan adierazitako aldaketak ZUMAIKO HIRI MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO PLANAREN Ekintza Plana Behin Betiko Onartzeko Dokumentuan sartzea:

- 2. alegazioa: Zumaiako zabalguneko bilbearen hiri- eta ingurumen-birkualifikazioaren helburua txertatzea.

- 3. alegazioa: Zumaiako zabalgunea berriz landareztatzea

- 9. alegazioa: auzoak topaguneak.

- 19. alegazioa: Oikiarekin bizikletentzako lotura.

- 20. alegazioa: TAO sistema ordenantza bidez berrantolatzea

- 23. alegazioa: Alde zaharrean ibilgailu astunei zirkulatzen uztea.

**BIGARRENA:** Zumaiako Eusko Alderdi Jeltzaleak aurkeztutako alegazio hauek ezestea, espedientean dagoen txosten teknikoan azaldutako arrazoiengatik:

acuerda ESTIMAR el presente dictamen de conformidad al artículo 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y someterlo a la consideración del Pleno que deberá adoptar el acuerdo con el quorum de la mayoría simple de los miembros presentes, el siguiente DICTAMEN:

**PRIMERO.** Estimar las siguientes alegaciones presentadas por Zumaiako Eusko Alderdi Jeltzalea e incorporar las modificaciones señaladas en el informe técnico en el Documento para la Aprobación Definitiva del Plan de Acción de PLAN DE MOVILIDAD URBANA SOSTENIBLE DE ZUMAIA :

- Alegación nº2: Incorporar el objetivo de recualificación urbana y ambiental de la trama del ensanche de Zumaia.

- Alegación nº3: Revegetación del ensanche de Zumaia.

- Alegación nº9: Espacios de encuentro de barrio.

- Alegación nº19: Conexión ciclable con Oikia.

- Alegación nº20: Reordenar el sistema de OTA a través de Ordenanza

- Alegación nº23: Permitir la circulación de vehículos pesados en el casco viejo.

**SEGUNDO:** Desestimar las siguientes alegaciones presentadas por Zumaiako Eusko Alderdi Jeltzalea por los motivos expuestos en el informe técnico que consta en el expediente: :

- 1. alegazioa: disuasio-aparkalekuen beharra kuantifikatzea eta horien kokapena zehaztea.

- 4. alegazioa: Alaiako espaloiak zabaltzea.

- 5. alegazioa: merkataritza-etxabeak edo bestelako lokalak hartzeko lehendik zegoen eraikinaren beheko solairuak aztertzea.

- 6. alegazioa: Zubitxiki zubiaren ondoko biribilgune berria.

- 7. alegazioa: Zumaiaiko zabalgunean aldi bereko kaleak ezartzea.

- 8. alegazioa: bizikleta-bidea Narrondo ibaiaren ezkerrean.

- 10. alegazioa: lurpeko ibilgailuen aparkalekua Eusebio Gurrutxaga plazaren azpian.

- 11. alegazioa: Alde Zaharreko autobus geltokia lekuz aldatzea.

- 12. alegazioa: Alde Zaharreko autobus-geltoki berria zebra-bidea zabaltzea.

- 13. alegazioa: arrapala gehigarria Erribera eta Olazabal artean aurreikusitako igogailuan.

- 14. alegazioa: igogailu berria San Telmo kalearen eta Larretxoko goiko aldearen artean.

- 15. alegazioa: Itzurunbidea eta Larretxo artean igogailua osatzea

- 16. alegazioa: hiri-eraldaketarako ardatza sortzea (LPPrekin lerrotzea)

- 17. alegazioa: geltoki intermodala ETSko geltokiaren inguruan

- 18. alegazioa: Aita Mari desjabetzeak ez sustatzea

- 21. alegazioa: HAPOa formulatzea, HAPO berrikusteko prozesua kontuan

- Alegación nº1: Cuantificar la necesidad de aparcamientos disuasorios y concretar su ubicación.

- Alegación nº4: Ampliación de aceras en Alai.

- Alegación nº5: Estudio de plantas bajas de la edificación preexistente para acoger bajos comerciales u otro tipo de locales.

- Alegación nº6: Nueva glorieta junto al puente Zubitxikia.

- Alegación nº7: Establecer calles de coexistencia en el ensanche de Zumaia.

- Alegación nº8: Vía ciclista en la margen izquierda de la ría Narrondo.

- Alegación nº10: Aparcamiento de vehículos subterráneo bajo la plaza Eusebio Gurrutxaga.

- Alegación nº11: Trasladar la parada de autobús del Casco Viejo.

- Alegación nº12: Ensanchar paso de cebra nueva parada de autobús del Casco Viejo.

- Alegación nº13: Rampa adicional en el ascensor previsto entre Erribera y Olazabal.

- Alegación nº14: Nuevo ascensor entre la calle San Telmo y la parte alta de Larretxo.

- Alegación nº15: Completar el ascensor entre Itzurunbidea y Larretxo

- Alegación nº16: Creación de eje de transformación urbana (alineación con PTP)

- Alegación nº17: Estación intermodal en el entorno de la estación de ETS

- Alegación nº18: No promover expropiaciones en Aita Mari

- Alegación nº21: Formular el PMUS teniendo en cuenta el proceso

hartuta.

- 22. alegazioa: Urola plazako aparkalekua birplanteatzea

**HIRUGARRENA:** BUCHANAN - TECHFRIENDLY PMUS ZUMAIA UTE enpresak AURKEZTUTAKO ZUMAIKO HIRI MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO PLANA behin betiko onartzea.

**LAUGARRENA:** Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Zumaiako udaleko egoitza elektronikoan ([www.zumaia.eus](http://www.zumaia.eus)) argitaratzea, Plana bere osotasunean ere Zumaiako udaleko egoitza elektronikoan eskuragarri jarri

de revisión del PGOU

- Alegación n°22:  
Replanteamiento del aparcamiento en Urola plaza

**TERCERO:** Aprobar Definitivamente el PLAN DE MOVILIDAD URBANA SOSTENIBLE DE ZUMAIA presentado por BUCHANAN - TECHFRIENDLY PMUS ZUMAIA UTE LEY 18/1982.

**CUARTO.** Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la sede electrónica del Ayuntamiento de Zumaia ([www.zumaia.eus](http://www.zumaia.eus)), el Plan en su totalidad se publicara en la Web del Ayuntamiento de Zumaia.

Zumaia, 2025eko abenduaren 10a

Lurralde batzordearen arduraduna

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Argi, azalpentxo bat eingo diguzu?

ARGI YEREGUI EGAÑA:

Gaur onartzera goazen mugikortasun planak badu ardatz nagusi bat: oinezkoa erdigunean jartzea. Gure herriak eta orokorrean gaur egungo gizarteak eskatzen duen norabidea: espazio publiko seguruagoa, atsegina eta inklusiboagoa eraikitzea, adin eta gaitasun guztietako pertsonentzat.

Horretan, zeresan handia du trafikoaren nolakotasunak eta produktibitatearen lehenesteak. Egun, autoen presentzia etengabeak eta asfaltuz bete diren azalerek herritar zaugarrienen autonomia mugatzen dute —haurrena, adinekoena, desgaitasunen bat dutenena— eta kaleak harremanetarako eta bizitzarako gune izatetik arriskuz eta kutsaduraz betetzen dituzte. Horregatik da beharrezkoa paradigma-aldaketa: gure kaleak, berriz ere, bizitzeko izatea.

Plan hau ez da autoen aurkakoa; kale bizien aldekoa baizik. Autoarekiko dependentzia murriztu, eta oinezkoak, txirrindulariak zein garraio publikoa lehenesteko neurriak hartzea ez da kapritxoa: pertsonen eta komunitatearen osasuna, jasangarritasuna eta kohesioa hobetzeko modurik eraginkorrenetako bat da.

Oposiziotik aurkeztu diren alegazioak arretaz aztertu ditugu. Oinezkoen herriaren ikuspegia indartzen duten ekarpenak onartuko ditugu, eta eskertzen ditugu. Baina, era berean, gure ikuspuntutik printzipio hauen aurka doazen alegazioak ez ditugu aintzat hartuko, aurretik azaldutako guztiarekin koherentzia mantentzeko.

Horrez gain, kontuan izan behar da, aldundiko txostenak dioen bezala, mugikortasun plan honek udalaren eskumenak diren gaiak soilik planifikatu ditzazkeela eta 5 urteren baitan egingarria den ekintza plan bat izan behar duela. Horregatik, udalaren eskumena ez diren gaiak ere baztertu egin dira eta planaren printzipioekin bat datozen baina 5 mugikortasun planaren epealdiaren barruan gehigizkoak iruditu zaizkigunak ere ez dira txertatu.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Oso ondo, eskerrik asko, Zerbait komentatzeko? Esan. Iker.

IKER MARDARAS ARRIETA:

Kaixo, arratsalde on.

Gure bozka abstentzioa izango da. Oinarriak hauek dira:

- Lehenik: berriz ere gogoratu nahi dugu hau atzerapen nabarmenarekin datorrela, ia 5 urtekoa, izan ere legearen arabera 2021a baino lehen onartuta egon beharko litzateke.
- EAJk ekarpenak egin dizkio planari, 23 alegazio aurkeztuz. Horietatik 6 onartu eta txertatu dira orain bozkatuko dugun dokumentuan.
  - Auzo Topaguneak edo Auzo Bihotzen ezarpena.
  - Bidegorriekin egiten den bezala, oinezkoen oinarrizko ibilbideen identifikazioan eta horiek gauzatzeko hartu beharreko neurrietan eta erabakietan sakontzea.
  - Zumaiako zabalgunea berriz landareztatzea, Patxita Etxezarreta eta Alai ingurunean.
  - Oikiarekin bizikletentzako lotura.
  - TAO sistema ordenantza bidez berrantolatzea.
  - Alde zaharrearain ibilgailu astunei zirkulatzen uztea.

Nahiz eta guretzat balore handiko eta beharrezko hainbat proposamen kanpoan gelditu, gure ustez landu beharko litzateke:

- hiri-eraldaketarako ardatza sortzea (LPPrekin lerrokatzea).
- geltoki intermodala ETSko geltokiaren inguruan.
- disuasio-aparkalekuen beharra kuantifikatzea eta horien kokapena zehaztea.
- Alaiko espaloiak zabaltzea.
- Txomin Agirre eta Saregile plaza arteko zebrabidea zabaltzea.
- Hala ere plan hau abiapuntu bat da eta martxan jartzen den heinean denbora eta aukerak izango dira aldaketak egiteko.
- Kezka sortzen zaigu udal gobernua planerekiko izango duen exekuzio mailarekin, izan ere:
  - 2026ko aurrekontuetan ez dago plana gauzatzeko neuririk, ez da partidarik txertatu eta hirigintzako programen azalpenetan plan honen garapen helburuen artean ez dago inolako aipamenik. Plan hau ez dago helburuen barruan.
  - Nahiz eta gure ustez (eta proposatu genituen emendakinek adierazi bezala) ba dauden epe laburrean egingarriak diren ekintzak (bizikleta aparkalekuak eta errekarga puntuak).

Hori da guztia, eskerrik asko.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko. Nik asko gehio ez dakat erantzuteko. Ez zait oso argi geatu. Aleaziua irakurri non baina uain zure azalpenian ez det ondo ulertu. Berriro azaltzen badiazu eskertuko nizuke ze gaur ez zait argi geatu. Eta bueno, onartzen ditugu 26ko aurrekontuak eta beti badao geo gauzak inkorporatzia 26an zehar eta plan hau aurrea eramateko. Gaur onartzen baditugu esan nahi du konpromisoa badaola hurrengo urtietan hor azaltzen diran ekimenak aurrea eramateko. Ez dakit, nahi baldin badezu aklaratu asunto hori, etzaitena oso argi geatu.

IKER MARDARAS ARRIETA:

Bai, bueno, Urola Kostako epaitegiak ezartzen du ardatz bat pasatzen dala Zumaiako saihesbidetik...

- Kide bat hizketan hasten da mikrorik gabe -

Guk jarri genun alegazio bat ardatz hori bariantetik jun beharrian herri barrutik jufia. Ardatz hori herri barrutik garatzia. Horrek ere eje hori, azken finean, sartzen da Gipuzkoako ardatz bezala eta Patxita Etxezarretako berrikuntzarako dirulaguntza lortzeko ahalbidetuko zukeen.

- Kide batzuk hizketan hasten dira mikrorik gabe -

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Hitzeingo degu zeatikan ez dakiu oso ondo konkretuki zertaz ai gean, baina bueno, akkuratuko dugu. Hor ardatzetako, ez dakit, plan honetako ekimen inportantienetakuak dia bai Patxita Etxezarreta eta Aita Marikin iten dan ardatz hori. Hori da, alegazioan zuek aurkezten dezue baina planian hala dago izendatuta hori dala. Orduan bada gai bat planian lantzen dana, gu ados gaudena ta danak ados gaudena hori landu bihar dugula. Klaro planak iten duna da marraztu goitikan zein dian gauzak eta gero in beharko dugu lanketa bat.

JOSEMI ANTIA ALBIZU:

Bai plan horretan eta baita ere uste det mugikortasunenian, azaltzen da hor? Boulevardizar ez, beste izen batekin jartzen da... variante jartzen du. In behar dana da bestia: Etxezarreta eta Axular, bide hori in beharko zula, eta bestia jartzen du. Nahasketa bat dao.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bueno, ez dakit. Hala jartzen badu aztertuko da bere momentuan. Ez dakit zertaz ai gean.

Besterik gabe. Bai, esan, Duñike.

DUÑIKE AGIRREZABALAGA UGARTE:

Bueno, gauzatxo bat. Nire taldeak ere Udal Gobernuakin ein dun tratua aurrekontuak onartzeko izan dira mugikortasuneko aurrera eramateko. Eta zentzu horretan jarraipena egingo deula. Nik ustet danon artian ein behar deula jarraipen hori ta bilatu irtenbideonenak. Badakiu badaudela dirulaguntza batzuk eskatzeko eta bere garaian eskatu egin beharko dira baina nik uste aurrekontuak ere eukiko dula dirua aurrea

eramateko ekintza konkretu batzuk. Nik ustet poliki-poliki martxan jarri behar dala ta nik ustet planak hori babesten dula. Martxan jartzeko hoja de ruta bat. Eskerrik asko.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Ados, eta danon artian kontatu beharko dugu ze azken finian gure goiko instituzioetan edo EAJ agitzen dago eta PSE agintzen dago. Orduan zuen beharra izango dugu dirulaguntza hoiek eskatzeko eta atzeko lana ere egiteko. Beraz denok ados. Bozkatu ingo dugu mugikortasun plana.

**Aldeko botoak: 11 (10 EH Bildu eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 5 (EAJ-PNV )**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

ZUMAIAKO HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIKO PLANA BEHIN BETIKO ONARTZEA

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:

Argipen bat: akordioan agertzen da onartzen direla EAJk sartutako alegazio batzuk. Mugikortasun planean sartzen dira. Eta bigarren puntuari ezezten direla besteak. Hirugarren puntuari onartzen da plana eta beraz publikatu behar dugu aldizkari ofizialean eta gure web orrian ere zintzilikatu behar dugu plana bere osotasunean. Besterik gabe.

**1.2.- 2025. URTERAKO ZUMAIAKO UDALEKO LANGILEEN ETA ORDEZKARI POLITIKOEN ORDAINSARIEN %2,5EKO IGOERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

<b>2025EKO ABENDUAREN 10EKO</b>	<b>DICTAMEN DE LA COMISIÓN</b>
<b>ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN</b>	<b>INFORMATIVA DE "ANTOLAKUNTZA" DE</b>
<b>IRIZPENA, 2025. URTERAKO ZUMAIAKO</b>	<b>10 DE DICIEMBRE DE 2025 SOBRE LA</b>
<b>UDALEKO LANGILEEN ETA ORDEZKARI</b>	<b>APROBACIÓN DE LA SUBIDA DEL 2,5%</b>
<b>POLITIKOEN ORDAINSARIEN %2,5</b>	<b>PARA EL AÑO 2025 DE LAS</b>
<b>IGOERAREN ONARPENAREN</b>	<b>RETRIBUCIONES DEL PERSONAL Y</b>
<b>INGURUAN, ABENDUAREN 2KO 14/2025</b>	<b>CARGOS POLITICOS DEL</b>
<b>ERREGE LEGE DEKRETUAK ARAUTZEN</b>	<b>AYUNTAMIENTO DE ZUMAI A COMO</b>
<b>DUENAREN ARABERA.</b>	<b>CONSECUENCIA DE LA APLICACIÓN</b>
	<b>DEL REAL DECRETO-LEY 14/2025, DE 2</b>
	<b>DE DICIEMBRE</b>

## AURREKARIAK

1.- 2025eko abenduaren 2ko Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, abenduaren 2ko 14/2025 Errege Lege Dekretua onartu zen, sektore publikoaren eremuko ordainsarien buruzko presazko neurriak onartzen dituenak. Neurri horiek 2025eko abenduaren 3ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

2.- Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoerei dagokionez, aipatutako Errege Lege Dekretuko 1. artikuluan arautzen duenaren arabera:

**1. 2025ean, sektore publikoko langileen ordainsariak ehuneko 2,5eko gehieneko igoera globala izan dezakete 2024ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, azken horietan barnean direla ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan jasotako ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria. Dekretu horrek Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen ditu eta zerga, energia eta gizarte arloan premiazko neurriak hartzen ditu. Ordainsarien igoera hori homogeneouski egingo da, konparazio-aldi bietarako, bai langileen kopuruari dagokionez, bai langile-antzinatasunari dagokienez, eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.**

## ANTECEDENTES

1.- El 2 de diciembre de 2025 por Acuerdo de Consejo de Ministros se aprobó el Real Decreto-ley 14/2025, de 2 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del sector público. Dichas medidas se publicaron en el Boletín Oficial del Estado de 3 de diciembre de 2025.

2.- En lo referente a los incrementos retributivos del personal al servicio del sector público, el mencionado Real Decreto-Ley, regula en el artículo 1 lo siguiente:

**1. En el año 2025, las retribuciones del personal al servicio del sector público podrá experimentar un incremento global máximo del 2,5 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2024, incluido en estas últimas el incremento retributivo adicional y consolidable del 0,5 por ciento recogido en el artículo 6.2 del Real Decreto-ley 4/2024, de 26 de junio, por el que se prorrogan determinadas medidas para afrontar las consecuencias económicas y sociales derivadas de los conflictos en Ucrania y Oriente Próximo y se adoptan medidas urgentes en materia fiscal, energética y social. Este incremento retributivo se considerará en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad de este y tendrá efectos económicos desde el 1 de enero de 2025**

3.- 2025. urterako udal aurrekontuetako I kapituluan aurreikusi da ordainsarien %2,5eko igoera estaltzeko kreditua.

3.- En el Capítulo I de los Presupuestos municipales para el año 2025, se ha previsto el crédito suficiente para cubrir el gasto de la subida del 2,5 %.

### IRIZPENA

Ondorioz, 2025eko abenduaren 10eko Antolakuntza Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Aldeko bozka: 5 bozka (2 EH-BILDU, 2 EAJ eta 1 Euskal Sozialistak)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

1.- 2025eko abenduaren 2ko 14/2025 Errege Lege Dekretuan araututakoaren arabera, Zumaiako Udaleko langileen ordainsariei, 2025eko urtarrilaren 1eko eragin datatik %2,5eko igoera aplikatzea.

### DICTAMEN

En consecuencia, la Comisión Informativa de Antolakuntza de fecha de 10 de diciembre de 2025, tras la siguiente votación:

Votos a favor: 5 votos (2 EH-BILDU, 2 EAJ y 1 Euskal Sozialistak)

APROBAR el presente dictamen de conformidad al artículo 135,3 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, y someterlo, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 22.2.I) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo con el quórum de la mayoría simple de sus miembros presentes establecido en el art. 47 de la Ley mencionada, la siguiente **PROPUESTA**:

1.- Teniendo en cuenta lo regulado en el Real Decreto-Ley 14/2025, de 2 de diciembre de 2025 aprobar la subida del 2,5% con efecto retroactivo desde el 1 de enero de 2025 de las retribuciones del personal del

## Ayuntamiento de Zumaia

2.- Horrekin batera, Zumaiaiko kargu politikoei 2025eko urtarrilaren 1eko eragin datatik aipatutako %2,5eko igoera aplikatzea.

3.- Aipatutako igoeraren ordainketa hilabete honetan edo ondorengoetan egingo da.

2.- Asimismo aplicar la subida mencionada de 2,5% con efecto retroactivo desde el 1 de enero de 2025 a los cargos políticos del Ayuntamiento de Zumaia.

3.- La subida mencionada se abonará en este mes o en los siguientes.

## Antolakuntza batzordeburua

### ASIER ARAKISTAIN ALBERDI:

Hemen aipatu abenduaren 2an Errege dekretuz onartu zutela Administrazio Publikoko langileentzako 2,5eko soldata igoera bat urtarrilaren 1eko atzera datakin. Eta bueno, irizpen honetan guk 2025eko aurrekontutan jasota ginun 2,5eko soldata igoera eta bueno urtarrilaren 1eko datakin ordainduko da bai langileen soldata igoera eta baita ordezkari politikoena.

Gero, bozkatu baino lehen bi aipamen. Errege dekretu hortan onartu zan 2026rako re bai 1,5eko soldata igoera bat aurrekontuak behin behinekuak dialako. Behin betiko izaera dutenian ba espero urtarrileko plenora ekartzia. Era berian aipatu guk aurrekontuak behin behinekoz azaruan onartu ginula. Hor jaso ginun 2,5eko partida bat soldata igoerarako 2026rako. 1,5a beraz jasota dao. %1ekoa soberakin bezela geatuko zan baina hala ere aipatu guk 2025eko azaruan onartutako 26ko aurrekontutan soldatak 2025ekuak ziala. Eta orduan hor eguneraketa bat egin beharko deula aurrera begira. Hau da, guk onartu ginun soldatak aurrekontutan 2026ko urtarrilan daude 2025eko kopurutan. Nahiz eta 2,5eko igoera eduki. Orduan eguneraketa hori egin beharko deula jakin.

### IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Ez baldin badao besteik bozkatu eingo deu.

**Aldeko botoak: 16 (10 EH Bildu, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

### 1.3.- 2024-2027RAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 1. ERANSKINA 2026KO AURREKONTURA EGOKITZEA, HALA BADAGOKIO.

#### AURREKARIAK

38/2003 Diru-Laguntzen Lege Orokorraren 8.1 artikulua kontuan izanik, 2024-2027 urteetarako dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zen, eta 2023ko abenduren 20an GAO-n argitaratu zen.

2024ko abenduaren 11ko GAOn argitaratu ziren: 2024-2027ko DLPEaren 2024ko 1.aldaketa, eta 2024-2027 urteetarako dirulaguntzen plan estrategikoaren eranskinak 2025eko aurrekontuetara eguneratzea ere.

Guzti horren ondoren, 2025eko azaroko ohiko osoko bilkuran 2026ko aurrekontuari hasierako onarpena eman zitzaionez, jarraian 2024-2027ko DLPE honen eranskinak 2026ko aurrekontuetara eguneratu behar dira.

2026ko aurrekontuaren egokitzapenaren aldaketaren proposamena, 1.eranskinean dago.

#### IRIZPENA

1. Horregatik, 2025eko abenduaren 10ean ospatzen den batzorde honek, onartzen du 2024-2027 epealdiko dirulaguntzen plan estrategikoaren 2026ko aurrekontuaren egokitzapenaren aldaketa, hurrengo botoekin:

Aldeko botoak: 3 bozka (2 EH-BILDU eta 1 Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak:

Abstentzia: 2 bozka (2 EAJ)

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea erabakitzen da.

Batzordeburua

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:

Badakizue dirulaguntza guztiak jasota egon behar direla legez dirulaguntzen plan estrategikoan. Edozein aldaketa edo edozein dirulaguntza berri jaso behar dela dirulaguntzen plan estrategiko horretan. Ta honen harira hor aipatzen zaizkizue azkeneko urtetako aldaketak 2024-2027 ziklorako. Eta esandakoa, hasierako aurrekontuari hasierako onarpena eman genion aurreko osoko bilkuran eta hor, ba bueno, jasotzen dira dirulaguntza hoi eranskin hoi. Hor planteatzen zaizue gaurko akordioan, ba azken finean, 2024-2027 epealdiko dirulaguntzen plan estrategikoaren 2026ko aurrekontuaren egokitzapena txertatzea. Besterik gabe.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Kaixo arratsalde on, EAJ-PNV taldeak abstentzia bozkatuko du ondorengo arrazoengatik:

Legealdia hasi zenetik dirulaguntza batzuk berdin mantendu dira eta eguneratu behar direla iruditzen zaigu. Adibidez kirol taldeak dirulaguntzetan 2023tik kirol klubei ematen zaizkien dirulaguntzaren kopurua oso antzekoa da edo jaitsi egin da pixkat eta kopuru hauek handitu beharko liratekeela uste dugu. Ta motxian, ba abstentzia bozkatuko dugu.

AITOR MANTEROLA GARATE:

Jaitsi 23tik dirulaguntzak klubetan... etzekiat, zertaz ai haiz o zehaztia bakak?

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Zehazki, 2023ko aurrekontuankirol dirulaguntza federatuentzat, taldeentzat zeuden oinarrian 100.000 euro zian eta jardueran 80.000. bai? 180.000 zian. Gaur egun 110.000 daude talde federatuentzat eta gero jarduerak egiten dituztenean 55.000 gehituz gero 165.000 dia. Beraz 180tik 165ea jeitsi gatik. Guri iruitzen zaigu gorantz jun beharko luketela partida hoi bereziki. Badakiu 14 taldek aurten eskatu dituztela dirulaguntzak ta bueno, beharrak gero ta haundiauak dia ta ahal izanez geo dirulaguntzak haunditzea proposatzen dugu.

AITOR MANTEROLA GARATE:

A ver, 100.000 eurotik 110.000 euroa iyotzia klubentzat dirulaguntzetan igoera dek, ezta? Eta bestian lehen 80.000 euro bazeuden ere partidetan iya sekula ez zan dana banatzen. Eta hor zuen taldean partetik an etorri zan eskaera bat... Eta gainera ez zan dana banatzen eta eskaera guztiak re ez zitzaiezen dana ematen, portzentaia bat

ematen zitzaien. Uain berriz ematen zaie eskautako dana eta ordun in dana da partida hori egokitu eskaera errealdan arabera. Eta ikusita dirua nola bazeon. Partida hori gutxitzia bazeon realidadea egokitzeko, ze in genun? Ba hain zuzen beste partida horta pasa klub en eskaera gehio daudelako.

XABIER ODRIUZOLA ETXANIZ:

Hitzein genun pasatzearena. 10.000 pasa zian. Guk proposatzen deuna da gehio pasatzia.hau komentatu genun, in zan saiakera bat. Bueno, iruitzen zaigu 110 hori haunditzen joan behar dala. Jardueretan, zuk esan dezun bezela, ba bueno, hortxe geatzea. Baina 14 taldek esjatzen dute. Gehiago daude ez dutenak eskatzen, baina haunditu in beharko litzateke.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Ez dakit hau gaurko eztabaidan kokatu behar zan edo aurrekontuen eztabaidan. Azken finían aurrekontuan ipintzen dia diru partidak eta agian egokio izango zan lehengo hilian eztabaida hau izan baldin bagenun. Zuen proposamenen barruan diru partida hori gehitzea. Datorren urtean seguraski hori izango da zuen proposamen bat.

Ez dugu bozkatu, ezta? Bozkatu ingo degu.

**Aldeko botoak: 11 (10 EH Bildu eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 5 (EAJ-PNV )**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

2024-2027RAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 1. ERANSKINA 2026KO  
AURREKONTURA EGOKITZEA

## **2.- PROPOSAMENA**

### **2.1.- JOSE MIGUEL ANTIA ZINEGOTZIAREN DEDIKAZIO PARTZIALA DEDIKAZIO OSORA ALDATZEA ETA AINHOA ILLARRAMENDI ZINEGOTZIAREN DEDIKAZIO PARTZIALA EZEZTATZEA 2025KO ABENDUAREN 19TIK AURRERA**

**EZTABAIDATU ALA EZ.**

**Aldeko botoak: 16 (10 EH Bildu, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

Udal antolakuntzari buruzko osoko bilkurak ebatzi beharko ditu arduraldi eskusibo edo partzialak duten toki-erakunde honetako kideen ordainsariak eta araubidea. Proposamen hau xede horiekin aurkezten da.

Legegintzaldi honetan hasierako ibilbide baten ondoren, beharrezkoa da dedikazio eskusibo eta partzialen araubidea aldatzea, Osoko Bilkurak 2023ko ekainaren 27an zehaztua, beren kargua betetzen duten gobernu-taldeko kideen jarraipen eta arreta egokia arduraldi eskusiboaren edo partzialaren araubidea, horrek udal-ogasunari zama handiagoa ekarri gabe, ezta, Osoko Bilkurak ezarritako araubidean inolako eragin ekonomikorik ekarri gabe.

EAJ taldeak proposatuta, 2023ko ekainaren 27an onartutako udal korporazioko kideen dedikazioaren araubidean aldaketa proposatzen da. Jose Miguel Antia zinegotziaren dedikazio partziala osora aldatzea eta Ainhoa Illarramendi zinegotziaren dedikazio partziala ezezte, 2025ko abenduaren 19tik aurreragoko eraginkortasunarekin.

Korporatiboen araubide ekonomikoa onartu edo aldatzeko organo eskuduna, udalbatzaren plenoa da, erabakia gehiengo soilez hartuko delarik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 82.3 eta 91.4 artikuluetan xedatutakoaren arabera

Hori horrela, Alkatetzak Udalbatzaren Osoko Bilkurari hurrengo

## PROPOSAMENA EGITEN DIO:

**LEHENA.-** 2025eko abenduaren 19tik aurrera Jose Miguel Antia zinegotziaren arduraldi-erregimena dedikazio eskusiboa izatera igaro dadila zehaztea, 2023ko ekainaren 27ko ezohiko bilkuran erabakitako dedikazio partzialaren orde, honako baldintza hauetan:

- Urteko ordainsari gordina: 39.811,10 €. Urtero eguneratuko da, erreferentziatuta dagoen Eusko Jaurlaritzaren ordainsarien eguneratzeen arabera.
- Oporrak: urte oso bakoitzeko ordaindutako oporrak hogeita lau lanegunekoak izango dira, astelehenetik ostiralera zenbatuta; lan egindako aldia laburragoa bada, oporrak aldi horren arabera hartuko dira. Hartu gabeko oporrak ez dira kitatuko.
- Laneko gaixotasun edo istripuagatikko bajaren kasuan, Udalak laguntza ekonomiko egokiak emango ditu ordainsari hori % 100ean osatu arte.

**BIGARRENA.-** 2025eko abenduaren 19tik aurrera Ainhoa Illarramendi zinegotziak orain arte izan duen arduraldi partziala ezezte.

**HIRUGARRENA.-** Onartutako dedikazioei aplikatzea 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Herri-Administrazioen Zerbitzuko Pertsonalaren Bateriaezintasunak arautzen dituen.

**LAUGARRENA.-** Erabaki hau Pertsonalaren Arloari jakinaraztea, 7/85 Legearen 75. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta eta baja eman diezaien, erantzukizun korporatiboak arduraldi eskusiboan garatzeagatik eta partzalean uzteagatik.

**BOSGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Zumaiako Udaleko iragarki taulan eta web orrian argitaratzea.

**Aldeko botoak: 16 (10 EH Bildu, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

### 3.- UDALBATZAKO ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

#### 3.1.- 2025EKO 21. ERREPARO ORRIA ETA HAREN ALKATE EBAZPENA JAKINARAZTEA.

#### KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (21/2025):

#### AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileak, Zumaiko Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

#### KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

#### Aplikagarria zaizkion arauak:

- 1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.
- 3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.

5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.

6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.

### Zehaztasunak:

**21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.**

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretzia.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udaltzatzen erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoaren erabilpeneko mankomunatuari erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoa."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen **funtsezko beharkizun** edo izapidetza alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

## **27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.**

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasanak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzaitzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

**Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

## **32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena**

12. artikulua. Eragozpenak.

1. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatatu behar dira, eta espedienteetan jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

2. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badio, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.

3. Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatuan jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.

b) Obligazioaren onarpenaren frogagirietan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.

c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedienteak akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientea onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu

izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

**b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:**

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2025/10/31	250383	ARAZI IKT, S.L.	URRIA. Algorri, Zumaiako natur baliabideen interpretazio zentroaren kudeaketa. 2018ko apirilaren 20an sinatutako kontratuaren luzapena	5.563,10
2025/11/13	FOSO-46752	EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS, S.A.	URRIA 2025 - EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA ZERBITZUAGATIK	24.791,32
				<b>30.354,42</b>

#### ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, gizarte zerbitzuetako kontratua, hau da, eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzuak lehenatasuna eduki beharko luke kontratuen

eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

## ALKATE EBAZPENA

### AURREKARIAK

2025eko azaroaren 28an kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (21/2025)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIKOA BEZA BARNE
2025/10/31	250383	ARAZI IKT, S.L.	URRIA. Algorri, Zumaiaiko natur baliabideen interpretazio zentroaren kudeaketa. 2018ko apirilaren 20an sinatutako kontratuaren luzapena	5.563,10
2025/11/13	FOSO-46752	EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS, S.A.	URRIA 2025 - EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA ZERBITZUAGATIK	24.791,32
				<b>30.354,42</b>

### ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Alkatea



Erreparo orria gaineratik azaldu du Alkateak.

### 3.2.- UDALAREN 25. ETA 26. KREDITU ALDAKETAK JAKINARAZTEA.

#### KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA (25)

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1100.629.432.00.01 2025	TXALUPA MOLLABERRI ERAIKINERAKO	0,00	8.531,00	8.531,00
<b>GUZTIRA</b>		0,00	8.531,00	8.531,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2025	DIRUZAINZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	8.531,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>8.531,00</b>

#### KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaian,

Alkatea

## KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA (26)

### Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 1300.227.342.05.97 2025	PILOTA JAIALDIA	15.000,00	3.230,00	11.770,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>15.000,00</b>	<b>3.230,00</b>	<b>11.770,00</b>

### Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 1300.227.341.00.99 2025	HERRI KIROLAK OIKIAN	0,00	3.230,00	3.230,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>3.230,00</b>	<b>3.230,00</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaian,

Alkatea

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Hemen zalantza bat atera zan eta bueno ba puntualizatzia ez dala txalupa erosten, baizik eta Beduola elkartiak laga edo eman iten dula. Iten dana da egokitu edo txukundu edo prestatu hor zintzilikatu ahal izateko.

Bigarrena gainetik azaldu du.

### 3.3.- ALKATE EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkate ebazpenen berri eman du Alkateak.

### 4.- ESKARI – GALDERAK

Zerbait baldin badakazue komentatzeko? Bueno ba honekin bukatutzat ematen dugu abenduko ohiko osoko bilkura. Ondo-ondo pasa Gabonak eta hurrengo urtian ikusiko dugu elkar.

-----

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko bostak eta hogeita hamar direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Zumaian, 2026ko urtarrilaren 21ean

IDAZKARIA

Alexander Marañon Muñoz



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2025IAKU0012-akta/acta ()